

# GOI MAILAKO IKASKETEN NAZIOARTEKO ESKARIA BALDINTZATZEN DUTEN FAKTOREEN ANALISIA

**Tesiaren egilea:** Virginia Rincón Díez

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

**Saila:** Finantza Ekonomia II Saila

**Tesi-zuzendaria:** Jon Barrutia Guenaga

**Tesiaren laburpena:**

Goi-mailako hezkuntzaren sektorea gero eta lehiakortasun handiagoko sektorea da eta aurreikustekoa da datorren hamarkadan zehar Espainiako unibertsitateek, Europan eta mundu-mailan lehiatu ahal izateko, beren nazioarteko hedadura eta ikasle kanpotarrak erakartzeko gaitasuna hobetzen saiatu beharko dutela. Lehiakortasun gorakorreko testuinguru horretan, garrantzitsua iruditu zaigu goi-mailako ikasketen nazioarteko eskaria eta unibertsitateen erakargarritasuna baldintzatzen duten faktoreak aztertzea. Modu horretan, politika eta kudeaketa unibertsitarioaren eragile nagusiei, eskariaren nazioartekotzearen esparruan, erabakiak hartzen laguntzeko informazioa eta analisia eskaini nahi izan diegu.

Ikerketa honetan, goi-mailako ikasketen eskariaren analisiari ikuspegi lehiakor bat erantsi nahi izan diogu; adibidez, herrialde bat edo erakunde unibertsitario bat erakargarriago egiten duten aldagaiak zeintzuk diren aztertuz. Unibertsitateen esparruan logika lehiakorra eta analisi ekonomiko enpresariala erabili ditugu, erakundeen efikazia eta efizientzia eta, beraz, gizarteari zerbitzu emateko gaitasuna hobetzeko helburuz.

Lehenik, GHEEko herrialdeetako goi-mailako hezkuntzaren atzerriko eskaria ikertu dugu. Lortutako emaitzen arabera, herrialdeen eremu geografikoak, hezkuntza-politikak eta I+G politikak herrialdeen nazioarteko eskarian nabarmenki eragiten dute. Hau da, aipatutako aldagaiak «herrialde efektu»aren faktore espezifikotzat har daitezke, goi-mailako ikasketen nazioarteko eskariaren esparruan.

Bestalde, Espainiako unibertsitateen posizio lehiakorra deskribatzen saiatu gara. Horrez gain, unibertsitateek kontrola ditzaketen aldagaiek eta unibertsitateen ezaugarri kontrolaezinek haien nazioarteko eskarian duten eragina ikertu dugu. Ezaugarri kontrolaezinei dagokienez, zenbait aldagaik hala nola titulartasunak, kokapen geografikoak edo erakundeak jasan beharreko konkurrentzia-mailak erakundeen nazioarteko eskaria baldintzatzen dutela ikusi dugu. Era berean, katedradunen proportzioa, ekoizpen zientifikoa edo matrikularen prezioa bezalako faktore kontrolagarriek unibertsitateen nazioarteko eskarian nabarmenki eragiten dutela ere ondorioztatu dugu.

Bukatzeko, Espainian bizi diren atzerritarren zenbait ezaugarri sozioekonomikok atzerritar horien goi-mailako ikasketak eskatzeko erabakia baldintzatzen dutela ere ikusi dugu; esate baterako, aitaren ikasketa-mailak edo aita zuzendaria izateak eskarian eragin positiboa sortzen dutela ikusi dugu.